

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Portugaleteko Udala**

**Ayuntamiento de Portugalete**

**2014**





## **AURKIBIDEA / ÍNDICE**

<b>LABURDURAK.....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>8</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....</b>	<b>10</b>
III.1 Udala eta Toki Erakunde Autonomoa .....	10
III.2 Sozietate publikoak .....	14
<b>IV. FINANTZA ANALISIA.....</b>	<b>16</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK .....</b>	<b>19</b>
V.1 Udala.....	19
V.2 Udal Hartzaindegia Erakunde Autonomoa .....	22
V.3 Sozietate publikoak .....	25
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>28</b>
<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>39</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>41</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>	<b>42</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	42
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	43
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>44</b>
III.1 Ayuntamiento y Organismo Autónomo Local.....	44
III.2 Sociedades Públicas .....	49
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>51</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>V. CUENTAS ANUALES</b> .....	<b>54</b>
V.1 Ayuntamiento.....	54
V.2 Organismo Autónomo Guardería Municipal.....	57
V.3 Sociedades Públicas .....	60
<b>ANEXOS</b> .....	<b>63</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	63
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	63
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	65
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	67
A.5 Gastos de personal .....	69
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios.....	71
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas .....	72
A.8 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales.....	73
A.9 Pasivos financieros .....	74
A.10 Deudores presupuestarios.....	76
A.11 Operaciones extrapresupuestarias .....	76
A.12 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	77
A.13 Análisis de contratación .....	78
A.14 Indicadores financieros y presupuestarios.....	80
A.15 Sociedades Públicas Locales .....	81
<b>ALEGACIONES</b> .....	<b>87</b>

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 20a.  
Vitoria-Gasteiz, 20 de julio de 2016.



## LABURDURAK

10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko lurralde historikoaren toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
20/2012 ELD	20/2012 Errege Dekretu Legea, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen testu bategina.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DEMUPORSA	Deportiva Municipal de Portugalete, SA.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
EA	Erakunde Autonomia
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga
HHS	Hiriko hondakin solidoak.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
INEM	Enplegu Institutu Nazionala.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
KES	Kontuen Europako Sistema
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina.
SURPOSA	Portugalete Zaharberritzeko Hirigintza-Sozietatea, SA
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TATB	781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen gaitan indarreko xedapenen testu bategina.



TOALTB      2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina.



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Portugaleteko Udalaren 2014ko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Portugaleteko Udalaren Kontu Orokorren aurreko fiskalizazio lana 2003ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, bere erakunde autonomoaren eta udal sozietate publikoen egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, oroitidazkia eta aurrekontuen likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren, bere erakunde autonomoaren eta udal sozietate publikoen kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi dela ere, fiskalizazioan zehar sortu diren akatsak Txosten honetako III. idazpuruan daude jasoa.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Portugaleteko udalerrak 47.117 biztanle ditu 2014ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera eta bere egituran, udalaz gain, honako hauek besarkatzen ditu:

- Txikitxu haurtzaindegia, aurrerantzean Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoa, zeinaren helburua haurtzaindegiko zerbitzu publikoak ematea duena.
- Deportiva Municipal de Portugalete, SA, aurrerantzean, DEMUPORSA, % 100 udalaren jabetzako dena. Sozietatearen helburua Portugaleteko udalerrian dauden kirol instalazioekin lotutako jarduera mota oro garatzea da, kirola sustatuz eta kirolariak trebatuz.
- Portugalete Zaharberritzeko Hirigintzako Sozietatea, SA, aurrerantzean SURPOSA, % 100 udalaren jabetzako dena. Sozietatearen helburua hirigintza izaerako zaharberritze jarduerak garatzea da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### LANGILERIA (ikus A.5)

1. Udalak errelebo-kontratuari lotutako erretiro partziala aukeratu duten sei langileri ordaindutako lizentziak eman dizkie, zeinahi ordain-ematetik salbuetsiak; era horretan, errelebo-kontratuaren izaera desnaturalizatu egin du.
2. Udal Haurtzaindegia erakunde autonomoak ez du LZrik eta horrek EFPLren 13. artikulua urratzen du.

#### KONTRATAZIOA (IKUS A.13)

3. Argindar horniduraren zerbitzuak Udalari 2014ko ekitaldian 502.959 euroren gastua eragin dio eta honenbestez, dagokion kontratazio prozedura baliatuta izapidetu behar zatekeen, publikotasun eta lehia printzipioei loturik.
4. Erakunde autonomoaren eta sozietate publikoen eraikinei argindarra hornitzeko eta herriko argien instalazioetan sareetarako sarbidea izateko kontratua 2014ko ekainean prozedura ireki bidez esleitu zen arte (9. espedientea), Udalak 217.031 euroren gastua egikaritu du eta DEMUPORSak 220.472 eurorena, kontratazio prozedurak saihestuta.

#### SARRERAK

5. Kirol jardueri dagozkien tarifak DEMUPORSaren administrazio-kontseiluak onartzen ditu eta ez udalbatzak, Tokiko Udalbatzen Zerbitzu-erregelamenduaren 148. artikulua agintzen duen moduan.

Epaitegi honen iritzira, Portugaleteko Udalak, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.





## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Portugaleteko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2014ko aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 UDALA ETA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOA

##### III.1.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra hasiera batean Udaltzako 2014ko urtarrilaren 30ean onetsi zuen; ordea, arautegiak behin betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- Kontularitzan erregistratzeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:
  - Udalak gastuen 9. kapituluaren aurrekontuan 1,8 milioi euro erregistratu ditu, lursailen desjabetzeen balio justua ordaintzean berandutza eta auzibideko interesen zatizko ordainketei dagozkienak. Horiek zuzen erregistratzeko gastuen aurrekontuko 3. kapituluaren jaso behar ziratekeen.
  - Udalak Egoeraren Balantzean 2014ko abenduaren 31n indarrean dauden mailegu guztiak epe luzeko zor modura erregistratu ditu. Horiek egoki erregistratzeko epe laburreko zor modura kontabilizatu beharko luke urtebete baino areagoko iraungipena ez duen zorraren zatia, 802.200 euro egin dituen.
  - Udalak itunpeko zergen diru-bilketan (Udalkutxa) parte-hartzeagatik BFAtik jasotako diru-sarrerak kutxa irizpidea baliatuta erregistratzen ditu. Honela, bada, 2014ko ekitaldian zehar konturako diru-sarrerak kontabilizatu ditu, baina ez ekitaldiko likidazioa, Udalarentzat negatiboa izan dena 745.403 euroren zenbatekoan. Komenigarria litzateke Udalak zenbateko hori likidazioak likidazio-gai duen ekitaldiko Balantzean erregistratzea.
- Udalak ez du 2014ko ekitaldiko ez Aurrekontuaren Likidazioan ez Kontu Orokorren Oroitidazkian jaso 2012an kendutako aparteko ordainsaritik langileei ordaintzeko duen % 75,56ari buruzko informaziorik, Udalari dagokionez 601.292 euro egiten dituen eta Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoari dagokionez, berriz, 19.605 euro.
- Udalak web orrian argitaratzen ditu udalaren aurrekontuak. Komenigarria litzateke, gainera, Likidazioa eta Kontu Orokorra ere argitaratzea.
- Nahiz Udalak bere jabetzakoak diren ondasun eta eskubideen inbentarioa duen, 2005eko ekainaren 30eko Udaltzako onartutakoa, inbentario hori ez da urtero onartzen. Gainera, 2014ko abenduaren 31n inbentario horrek duen balioa ez dator bat Udalaren Ibilgetuko idazpuruetan eta Egoeraren Balantzeko atxikitako, atxikipenean dagoen eta lagatuko Ondarearen kontuetan jaso dagoenarekin. Komenigarria litzateke Udalak Inbentarioaren eta Balantzearen arteko aldirian behingo berdinkatzeak egitea, alde horiek saihestearren.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Udalaren kontu-hartzaitzak azaleratu duen moduan, nominaren gaineko aldez aurreko fiskalizaziorik ez da egiten eta sozietate publikoen gaineko artekaritza kontrola finantza-alderdietara lerratzen da (urteko kontuen analisisa eta auditoria-txostenak) eta honenbestez, ez ditu gainerako kontrol moldeak besarkatzen (legezkotasuna, eraginkortasunaren gaineko ekonomikoa, efizientzia eta antolamenduzkoa), 10/2003 F Aren 73. artikulua agintzen dituenak.

### III.1.2 ZERGA SARRERAK

- Udalak kobratzen dituen premiamenduko zorren gainordainak eta berandutze interesak soilik erregistratzen ditu, egikaritza aldia abiarazten den unean zorpetze irizpidea baliatuta kontabilizatu beharrean. Kontzeptu honek duen kobragarritasun eskasa eta antzintasuna aintzat hartuta, Diruzaintza Geldikinean horren eragina hutsa litzateke.

### III.1.3 LANGILEAK

- 2008ko abenduaren 23an udalbatzak 2008-2011 aldirako Udalaren zerbitzura diharduten langileen enplegu baldintzak onartu zituen, 2014ra artean indarrean egon direnak. Erabaki hau, Erakunde Autonomoari ere badagokiona, ez da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara eman.
- Udalaren LZn barne hartutako lanpostuen erdia baino gehiago lan-kontratuko langileentzat gordea dago; ordea, EFPLren 19. artikulua agindutakoaren arabera, euskal administrazio publikoetako lanpostuak izaera orokorrarekin funtzionarioek beteko dituzte.
- Hiru langileri borondatezko erretiro aurreratuagatik kalte-ordain kontzeptuan ordaindutako 89.000 euroren ordainsariak ez dira hala aitortu PFEZ ondorioetarako.
- 2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden 2007 eta 2009an izenpetutako obra edo zerbitzu jakinerako 2 kontratu, hurrenez hurren, Udalaren hirigintzako jardueretako esleipenetan administrazio-laguntza emateko eta aukera-berdintasuneko udal planak garatzeko. Aldi baterako kontratazioan saihestu egin behar kontratuaren xedearen iraupenean zehaztasun eza.
- 2014ko ekitaldian hutsik zegoen funtzionario plaza bat bitartekotasunez betetzeko hautaketa-prozesua gauzatu zen eta prozesutik eratorritako lan-poltsa eratu zen. Nahiz prentsan eta Udalaren web-orrian publikotasuna eman zaion, gomendagarria irizten diogu izendapenak izango duen iraupena aintzat hartuta, aldizkari ofizialean argitara ematea.
- Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoak 2008an lan-poltsa bat egin zuen, 2000ko urteko lan-poltsa bati lehentasuna emanez. 2014an aldi baterako laguntza emateko 3 hezitzaile kontratatu dira, 2000ko lan-poltsakoak eta 4, 2008koak. Igarotako denbora aintzat hartuta komenigarria litzateke lan-poltsak gaurkotzea.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoak ez du gauzatutako egintzen nahikoa euskarri edo ebidentziarik uzten, aldi baterako kontratazioetarako lan poltsak zuzen kudeatu direla egiaztatzea bideratuko dutenak.

### III.1.4 DIRU-LAGUNTZAK

- Portugaleteko Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituena.
- Aztertu ditugun bi diru-laguntza izendunetan, 127.238 eurorenak, emakida lankidetzaren hitzarmen bitartez gauzatu da fundazio batekin, zeinetan Udalak parte hartzen duen, eta irabazi asmorik gabeko erakunde batekin; ordea, ez da justifikatzen horien xedek kontratazioaren arautegitik salbuetsiak egotea.
- Emandako diru-laguntzen justifikazioari dagokionez, zera esan behar da:
  - Aztertu diren espedienteetarik batean ere ez dago erasota onuradunek igorritako justifikazio agiriak aztertu direnik, jasotako agirien zuzentasuna ez ezik, zenbatekoaren eman zaien erabilpenarena ere balioztatzearen.
  - Irabazi asmorik gabeko elkarte bati droga-mendekotasunaz gaztigatzeko emandako 87.238 euroren diru-laguntza izendun batean, ez ziren eskatutako agiri guztiak aurkeztu.

### III.1.5 KONTRATAZIOA

#### Irizpen orokorrak

2013ko abenduan lizitazioak eta emaitzak Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataforman argitara emateko obligazioa jaso zen, bai zuzenean bai udal plataformarekiko lotura bidez (Merkatu-batasunaren Bermeari buruzko 20/2013 Legearen 3. xedapen gehigarria); Udalak, baina, ez du betekizun hori bete.

Kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoak ez du bertan jasotzen den informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen utziko duen gailu egokirik.

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta iritziaren atalean aipatu ditugun ez betetzeak alde batera, honako alderdi hauek bereizi behar ditugu (ikus A.13):

#### Espedientea

- Udalak administratiboko kontratu berezi modura kalifikatu du hiria garbitzeko eta hiri-hondakin solidoak jaso eta garraiatzeko kontratua, 2009ko ekitaldian 8 urtetarako esleitu zena, beste bitara luzagarri (3. espedientea), urteko 4 milioi euroren zenbatekoan; ordea, izaerari erreparatu gero, zerbitzu-kontratua litzateke.
- San Rokeko eguneko zentroa eta San Roke, Villanueva, gure Bakea eta Buenavista zaharren egoitzak kudeatzeko kontratua (10. espedientea) 2014ko otsailean esleitu zen



urteko 352.976 euroren prezioan 3 urte luzagarritarako eta zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu modura kalifikatu zen, kontzertuaren moldepean; kontratu honetan publikotasunik gabeko prozedura baliatu da lehia ezin dela bideratu iritzita. Kontratu horretan zerbitzuak esleipendunaren beraren instalazioetan (eguneko zentroa) zein Udalaren beraren beste jabetza batzuetan (zaharren egoitzak) ematen direnez gero, egokiagoa litzateke horiek bereiz izapidetzea.

### Administrazio klausula partikularren pleguak

- Pleguetan jasotako esleipen irizpideetan azaleratu diren akatsak honako hauek izan dira:
  - 5,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 kontratuk (3 eta 14 espedienteak), besteak beste, kontratuaren xedeari zuzenean lotzen ez zaizkion esleipen irizpideak barne hartzen dituzte, izan ere, lizitatzailleen kaudimena dute oinarri eta ez eskaintzen ezaugarri teknikoak (curriculumen balioa, tailerren ekipamendua eta biltegiak). Bestetik, aleko prezioetan esleitutako kontratu batean (1. espedienteak), txosten teknikoak balioa ematen dio udalerrian egoitza izateari, nahiz Pleguetan ez den irizpide hau jasotzen.
  - 4 milioi euroan esleitutako kontratu batean (3. espedienteak) esleipen irizpide modura balioztatzen da makina kopuru handiagoa edo zerbitzuko lanaldi kopuru handiagoa izatea; ordea, baldintza teknikoaren pleguetan ez dira aipatu ere egiten lanak egikaritzeko beharrezko diren gutxienekoak.

### Esleipena

- Aztertu ditugun hiru obra espedientetan, eraikin eta eskolen garbiketa xede izan eta 5,1 milioi euroren zenbatekoan esleitu direnetan (5, 12, 13 eta 14 espedienteak), aurkeztu diren eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguko irizpide bakoitzari emandako puntuazioak xehatzen ditu, baina ez du puntuazioa justifikatzen.
- Udalerrian etxerako laguntza zerbitzua ematea xede duen kontratua 2013ko ekitaldian esleitu zen urtebeteko aldirako, luzatzeko aukerarik izan gabe, indarraldia 2014an amaitu zitzaiola. Alabaina, egikaritzen jarraitu zuen, espediente berriaren izapidea 2014ko martxoan abiarazi baitzen (1. espedienteak) eta ez zen behin-betiko esleitu 2014ko uztailean arte.

### Egikaritza eta harrera

- Guztira 9,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 6 kontratutan (3, 4, 5, 7, 12 eta 14 espedienteak), aldatetako onartu aurreko txosten juridikoak ez ditu Udalaren idazkariak egiten.
- Milioi 1 euroren zenbatekoarekin esleitutako obra kontratu batean (12. espedienteak) obraren gaineko aldatetako bat onartu da, 149.615 eurorena, obraren azken ziurtagiria egin eta gero.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Obra kontratu batean (13 zk. esp.), guztira milioi 1 euroan esleitutakoan, harrera akta atzerapenez egin zen aurreikusitako epearekiko (5 hilabete).
- Guztira 4,7 milioi euroan esleitutako 2 kontraturi egindako zenbait aldaketetan (3 eta 4 espedienteak) behin-betiko bermeen doiketa urtebeteko kontratuaren prezioa oinarri hartuta egin da eta ez, aldagai duten kontratuari geratzen zaion indarraldiko epe osoa hartuta. Gainera, kontratu hauetako batean 2011ko urtarrilean eta 2012ko maiatzean onartutako aldaketetan (3. espedientea) ez da justifikatzen horiek ustekabeko arrazoiengatik egin direnik.
- Bi urteko eperako urteko 533.000 euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (7. espedientea), urtero beste bi urtera arte luzagarria denean, 2013ko azaroan 1. luzapena ez ezik, prezioa % 10 jaisten duen aldaketa bat ere onartu zen. Aldaketa hori pleguetan aurreikusia ez zegoenez gero, komenigarria zatekeen kontratua ez luzatzea eta beste lizitazio bat deitzea.

#### Erosketa txikien analisia

- Zenbait kale asfaltatu eta petatxatzeko lanek, enpresa bakar batek egin dituenak, 2014ko ekitaldian 187.795 euroren egikaritza izan dute. Nahiz gastu horiek modu independentean eta gertuko datetan fakturatu diren (4 hilabeteren buruan), xede berberari dagozkie; honenbestez, kontratazioa gutxienez publikotasunik gabeko prozedura bitartez gauzatu behar zatekeen.
- Duela zenbait urtez geroztik 5 zerbitzu-emanaldi edo hornidura erosketa txiki modura izapidetzen dira, 2014an guztira egikaritutako 148.194 euroren zenbatekoa egin dutenak. Gastu hauek denboran duten segida aintzat hartuta, gomendagarria litzateke horiek, gutxienez, prozedura negoziatu bidez kontratatzea (ikus A.13).

### III.1.6 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- 2014ko ekitaldian ez dira Udalaren eta Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoaren merkataritzako eragiketarako ordaintzeko aurreikusitako epeak betetzeari dagokionez hiruhileko txostenak egin, BFARI aurkeztu behar zaizkionak.
- Aztertutako kontratazio espedienteetan 4,5 milioi euroren ordainketak lege ezarritako 30 eguneko epea gaindituta egin direla ikusi da (aztertutako guztiaren gainean % 32); ordainketa horiek batez beste 10 egunetan gainditu dute epea.
- Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik.

## III.2 SOZIJETATE PUBLIKOAK

### III.2.1 KONTRATAZIOA

Kontratazio administratiboa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.15):

- Pleguetan jasotako esleipen irizpideetan azaleratu diren akatsak honako hauek izan dira:



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- DEMUPORSAk 2,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 kontratuen pleguek (1 eta 2 espedienteak), besteak beste, kontratuaren xedeari zuzenean lotzen ez zaizkion esleipen irizpideak barne hartzen dituzte edota lizitatzailen kaudimena dutenak oinarri eta ez eskaintzen ezaugarri teknikoak.
- DEMUPORSAren kontratu lean (2. espedienteak), urteko 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoan, esleipen irizpide modura balioztatzen da hobekuntzak egitea; ordea, baldintza teknikoen pleguetan ez dira hobekuntza horiek balioztatzeko irizpideak zehazten.
- SURPOSAs esleitutako obra kontratuan, 248.234 eurorenean (3. espedienteak), esleipendunak egiten duen kaudimen teknikoaren egiaztapena ez zaio pleguetan zehaztutakoari egokitzen.
- DEMUPORSAren kontratu batean eta SURPOSArenean (1 eta 3 espedienteak), guztira 1,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan (1, 2 eta 3 espedienteak), aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen. Gainera, aztertu dugun obra kontratuan, SURPOSAs esleitutakoan (3. espedienteak), balorazio txostena zuzendari gerenteak izenpetzen du eta ez teknikariek edo ebaluazio-batzordeak, Sozietatearen Kontrataziorako barne aginpideetan jasoa dagoen moduan.

### III.2.2 BESTE BATZUK

- DEMUPORSA eta SURPOSAREN 2014ko ekitaldiko inbentarioa ez du akziodunen Batzorde orokorrak onartu.  
DEMUPORSAk ez ditu Ibilgetuan erregistratu La Florida futbol zelaiko instalazioei eta Industriaren Museoa (Rialia) hartzen duen eraikinaren zati bati dagozkien atxikitako ondasunak. Orobat, SURPOSAs ez ditu erregistratu Udalak atxikitako Salazargo Dorreko lokalak eta jatetxea, ezen guztiek ere ez baitute dagokion balioaren atxikipen-erabakirik.
- DEMUPORSA eta SURPOSAREN Egoeraren Balantzeko “Epe laburreko finantza inbertsioak” eta “Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk” epigrafeek saldo esanguratsuak jaso dituzte 2014ko abenduaren 31n. Baliabide horiek hobeto kudeatzearren, gomendagarria litzateke Udalak saldo horiek osotasunean kudeatzeko aukera aztertzea.
- SURPOSAs finantza-erakundeekin dituen kontu-korranteetan funtsak baliatzeko baimendutako sinadura Sozietatearen gerenteak bakarrik du. Baimen hori pertsona gehiagori ematea eta sinadurak mankomunatuak izatea gomendatzen dugu.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldian likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2012(*)	2013(*)	2014	2012	2013	2014
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	15.561	17.703	16.394	326	375	348
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	38.464	26.744	30.730	805	566	652
Ondare sarrerak (5. kap.).....	813	354	132	17	7	3
<b>A. Diru-sarrera arruntak</b> .....	<b>54.838</b>	<b>44.801</b>	<b>47.256</b>	<b>1.148</b>	<b>948</b>	<b>1.003</b>
Langile gastuak (1. kap.).....	17.713	17.518	18.312	371	371	389
Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	19.814	19.222	18.455	415	407	392
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	6.723	7.301	5.907	141	155	125
<b>B. Funtzionamendu gastuak</b> .....	<b>44.250</b>	<b>44.041</b>	<b>42.674</b>	<b>927</b>	<b>933</b>	<b>906</b>
Aurrezki gordina (A-B).....	10.588	760	4.582	221	15	97
- Finantza gastuak (3. kap.).....	192	120	72	4	3	2
<b>Emaitza arrunta</b> .....	<b>10.396</b>	<b>640</b>	<b>4.510</b>	<b>217</b>	<b>12</b>	<b>95</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	759	12.337	3.119	16	261	66
<b>Aurrezki garbia</b> .....	<b>9.637</b>	<b>(11.697)</b>	<b>1.391</b>	<b>201</b>	<b>(249)</b>	<b>29</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	338	-	19	7	-	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	2.420	3.986	5.303	51	84	113
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	8.823	2.888	5.228	185	61	111
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	11.596	10.732	-	243	227	-
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(17.661)	(9.634)	94	(370)	(204)	2
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(7.265)	(8.994)	4.604	(15)	(19)	10
Diruzaintza Geldikin Likidoa.....	25.232	2.168	2.486	528	46	53
Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina.....	21.935	1.792	1.757	459	38	37
Zorpetzea 12.31n.....	5.945	5.136	4.327	124	109	92

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 5 egin dute gora 2014ko ekitaldian, batik bat transferentzia eta diru-laguntza arruntek gora egin dutelako; alabaina, % 18 egin zuten behera 2013an kapitulu berean. Bariazio nagusiak honako hauek izan dira:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Sarrera hauek 2014an % 8 murriztu ziren 2013arekiko, eta 2013an % 12 gehitu ziren 2012arekiko. Hona hemen aldakuntza nagusiak:
  - Zerga zuzenek eragindako diru-sarrerak ez dute ia aldaketarik izan aztertutako 2012-2014 aldian, izan ere % 0,1 egin dute behera 2014an eta % 1,6 gora 2013an.
  - EIOZ kontzeptuko diru-sarrerak % 52 murriztu dira 2014ko ekitaldian, nahiz aurreko ekitaldian baino 137 espediente gehiago izapidetu diren.
  - 2013an gora egin ostean murriztu egin dira 2014an tasa eta bestelako sarrerak eragindako diru-sarrerak, izan ere, ekitaldi horretan aparteko likidazioa egin zen bi aparkalekuko obren betearazte subsidiarioagatik, 1,5 milioi eurorena.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Transferentzia eta diru-laguntza arruntek eragindako diru-sarrerek % 30 egin zuten behera 2013an, izan ere 2012ko ekitaldian Eusko Jaurlaritzak 10 milioi euroren diru-laguntza zuzena eman zion nahitaezko zerbitzuak ematek eratorritako gastuei aurre egiteko, TAOALen 26.1 artikuluan jasoak daudenak.

2014an % 15 egin zuten gora Udalkutxako transferentzietan 2,3 milioi euroren igoeraren ondorioz; baita EAEk eta BFAk Pando Aisia kiroldegia, zaharrentzako eguneko zentroa eta haurtzaindegia kudeatzeko emandako 1,3 milioi euroren ondorioz.

- **Ondare sarrerak:** % 63 egin dute behera 2014an eta % 56, 2013an, Azetako mendimagalak desjabetu ostean ordaindutako balio justuak eragindako diruzaintza-murrizketa dela-eta.

**Funtzionamendu gastuak:** Orokorrean % 3 egin zuten behera 2014an eta % 0,5, 2013an. Osagai dituzten kapituluetan izandako aldaketak honako hauek dira:

- **Langile gastuak:** % 5 egin dute gora 2014ko ekitaldian, 2012ko abenduan kendutako aparteko ordainsariaren % 24,44 ordaindu izanaren ondorioz eta aldi baterako langileria gehitu izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** % 4 egin du behera 2014an eta murrizketa nagusiak izan dira: 337.034 euro gastu juridikoetan; 116.155 euro etxez etxeko laguntzan eta 115.857 euro udal instalazioen garbiketan.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Gastu hauek % 19 egin dute behera 2014an, DEMUPORSari egindako urteko ekarpena 844.959 euroan murriztu direlako eta langabetuak kontratatzeke diru-laguntza kendu delako, 2013an 420.659 euroren kostua izan zuena.

**Aurrezki gordina:** Magnitude honek bere onera egin du 2013an izandako beheraldiaren ostean, nagusiki sarreretan izandako igoeraren eta gastuei eutsi izanaren ondorioz. 2012an 10,6 milioi eurora arte igo zen aurrez aipatutako Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak eraginda.

**Aurrezki garbia eta zorpetzea:** 2013an aurrezki garbia negatiboa izan da eskuratutako aurrezki gordina urria izan delako, Azetako lursailen desjabetzeagatik balio justu kontzeptuan 9,8 milioi euro ordaindu direlako eta 2009 eta 2011ko Udalkutxako likidazioetan 1,8 milioi euro itzuli direlako, gastuen 9. kapituluaren erregistratutakoak. 2014an positibo eutsi dio maileguen amortizazioaz gain, aipatutako balio justuaren interes kontzeptuko 1,8 milioi euroren ordainketa soilik erregistratu ostean.

**Kapital eragiketen emaitza:** 2012an eta 2013an kopuru negatiboa DEMUPORSak Pando Aisia kiroldegia eraiki izanak eragin du, Udalak kapital transferentzien bitartez finantzatu zuena. Gainera, 2012an 5 milioi euro ordaindu ziren Azetako desjabetzearen balio



justuaren kontzeptuarekin, oraingoan inbertsio erreal modura erregistratu zirenak. 2014an aparteko inbertsioak oso-osorik BFAREN eta EAEREN Administrazio Orokorraren kapitalezko diru-laguntza bidez finantzatu dira.

**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** 2012 eta 2013ko ekitaldietan magnitude hau negatiboa izan da, kapitalezko eragiketek izan duten emaitza negatiboaren ondorioz. Alabaina, 2014an balio positiboa erakutsi du aurrezki gordinak gora egin duelako eta kapitalezko eragiketetan emaitza positiboa izan delako.

**Diruzaintza geldikina:** Saldo positiboa erakutsi du aztergai izan dugun aldian, nahiz nabarmen murriztu den epe horretan zehar.

**Ondorioa:** 2014ko ekitaldian Portugaleteko Udalak aurrezki garbi positiboa izan du eta horrek, jasotako kapitalezko diru-laguntzekin batera, 2013koa baino inbertsio-programa handiagoa finantzatzeko bide eman dio, kanpoko zorpetzea baliatu beharrik izan gabe. Udalak Azetako mendi-magalak desjabetzetik eratorritako zor handiari aurre egin beharko dio; Udalak zor hori 2014ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzean 11,2 milioi euroren zenbatekoan kontabilizatu du, baina 2015eko azken epaiaren ondoren kopurua 4,2 milioi euroan handitu da (1,9 milioi euro balio justuarenak eta 2,3 milioi euro, berandutza interesenak).

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun printzipioa eta gastuaren araua betetzen dela adieraziaz.

Udalaren finkatutako likidazioak, KESaren arauei jarraiki, finantzaketa ahalmen positiboa erakutsi du. Gastuaren araua ere bete da.

Finantzaren iraunkortasun printzipioari dagokionez, egiazko zor biziaren bolumenak ez du 2014ko abenduaren 31ko diru-sarrera ez finantzarioen % 60a gainditzen, arestian adierazitako desjabetzetik eratorritako interesak aintzat hartuta ere.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2014-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE		KOBRA		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
1. Zerga zuzenak .....	A.3	8.073	-	8.073	7.977	7.621	356	99	
2. Zeharkako zergak .....	A.3	545	-	545	308	283	25	57	
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	6.987	-	6.987	8.109	7.605	504	116	
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	31.593	137	31.730	30.730	29.848	882	97	
5. Ondare sarrerak .....		306	-	306	132	120	12	43	
6. Egiatzko inbertsioen besterentzea .....		-	-	-	20	20	-	-	
7. Kapital transferentziak .....	A.4	5.507	120	5.627	5.303	2.905	2.398	94	
8. Finantza aktiboak .....		-	1.765	1.765	-	-	-	-	
9. Finantza pasiboak .....		-	-	-	-	-	-	-	
<b>GUZTIRA</b>		<b>53.011</b>	<b>2.022</b>	<b>55.033</b>	<b>52.579</b>	<b>48.402</b>	<b>4.177</b>	<b>(*99)</b>	

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.	
1. Langileria gastuak .....	A.5	18.313	77	18.390	18.312	17.924	388	100	
2. Ondasun arruntan erosketak eta zerb. ...	A.6	19.567	(352)	19.215	18.455	16.684	1.771	96	
3. Finantza gastuak .....	A.9	76	(3)	73	73	73	-	100	
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	6.737	296	7.033	5.907	5.533	374	84	
6. Inbertsio errealak .....		5.997	1.204	7.201	5.228	3.221	2.007	73	
7. Kapital transferentziak .....		-	-	-	-	-	-	-	
8. Finantza aktiboak .....		-	-	-	-	-	-	-	
9. Finantza pasiboak .....	A.9	2.321	800	3.121	3.119	3.119	-	100	
<b>GUZTIRA</b>		<b>53.011</b>	<b>2.022</b>	<b>55.033</b>	<b>51.094</b>	<b>46.554</b>	<b>4.540</b>	<b>93</b>	
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>1.485</b>				

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.		KOBRA./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA	
Zordunak .....	A.10	5.273	(375)	1.715	3.183	
Hartzekodunak .....		2.492	3	2.481	8	
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>			<b>(372)</b>			



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Aitortutako eskubideak .....	52.579
Aitortutako obligazioak .....	51.094
<b>INDARREKO AURREKONTUKO AURREKONTUZKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>1.485</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUZKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(372)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>1.113</b>
Finantzaketaren desbideratze positiboak .....	(445)
Finantzaketaren desbideratze negatiboak .....	62
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	1.144
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>1.874</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2014/1/1 .....	2.168
Aurrekontuaren emaitza .....	1.113
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. alaketak .....	(795)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 2014/12/31-N</b>	<b>2.486</b>
Diruzaintzako funts likidoak .....	5.176
Sarreraren aurrekontuaren zordunak (A.10) .....	7.360
Aurrekontuak ez diren zordunak (A.11) .....	1.071
Gastu aurrekontuaren hartzekodunak .....	(4.548)
Aurrekontuak ez diren hartzekodunak (A.11) .....	(1.882)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA 2014/12/31-N</b>	<b>7.177</b>
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (A.10) .....	(4.691)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2014.12.31-N</b>	<b>2.486</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina (A.4) ....	(729)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>1.757</b>
<b>ZORPETZEA 2014.12.31-N</b>	<b>4.327</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2014 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan			
AKTIBOA	ERANSKINA	2014	2013	PASIBOA	ERANSKINA	2014	2013
<b>IBILGETUA</b> .....	<b>A.8</b>	<b>166.782</b>	<b>168.427</b>	<b>BEREZKO FUNTSAK</b> .....		<b>153.742</b>	<b>151.950</b>
Erab. or. em. azp. ond.& ond.....		46.979	44.857	Ondarea.....		180.920	180.920
Ezmateriala.....		275	342	Atxikipen bidean dagoen ondarea ....	A.8	386	386
Materiala .....		43.739	47.358	Atxikitako ondarea .....	A.8	(386)	(386)
Lurraren Udal Ondarea.....		64.873	64.954	Lagataka ondarea .....	A.8	(8.682)	(8.682)
Finantzariora.....		10.916	10.916	Aurrek. Itxien emaitza posit.....		8.012	8.012
				Ekit. itxien emaitza negatiboak.....		(28.300)	(11.723)
				Galera-Irabaziak.....		1.792	(16.577)
				<b>ARRISKU ETA GASTUETARAKO ZUZKIDURAK</b>		<b>-</b>	<b>-</b>
				<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA ....</b>		<b>15.527</b>	<b>18.646</b>
				Sekt. publik. erakundeekiko zorrak....		-	510
				Jasotako mailegueng. e/luz.zorrak.....	A.9	4.327	5.136
				Ibilgetuko hartzekod. epe luz. ....	A.9	11.200	13.000
<b>ZORDUNAK</b> .....		<b>3.740</b>	<b>1.979</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABUR.....</b>		<b>6.430</b>	<b>4.233</b>
Ekitaldiko aurrek. zordunak .....	A10	4.177	3.221	Indarreko ekit. aurrek. hartz. ....		4.540	2.485
Ekit. itxien aurrek. zordunak .....	A.8	3.183	2.052	Ekit. itxien aurrek. hartzekodunak ....		8	6
Askotariko zordunak .....	A.11	1.048	583	Sarrerak itzultzeagatiko hartzek. ....		-	1
Entitate publiko zordunak .....	A.11	23	19	BEZarengatiko hartzekodunak .....	A.11	4	4
-Kaudimengabez. zuzkid. ....	A.10	(4.691)	(3.896)	Bestel. hartzekodun ez aurrek .....	A.11	245	245
				Erakunde Publiko hartzekodunak ....	A.11	1.136	1.056
				Jasot. bermeak eta gordailuak.....	A.11	497	436
<b>FINANTZA-KONTUAK</b> .....		<b>5.177</b>	<b>4.423</b>				
Bermeak eta erat. gord. e/lab.....		1	-				
Diruz. eta aktibo likido baliok.....		5.176	4.423				
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>175.699</b>	<b>174.829</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>175.699</b>	<b>174.829</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2014 ETA 2013-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK					Euroak milakotan		
GASTUAK	ERANSKINA	2014	2013	SARRERAK	ERANSKINA	2014	2013
Langileria gastuak .....	A.5	18.539	17.746	Negozio zifraren zenb. garbia .....		5.889	6.180
Ibilg. amort. zuzkidura .....	A.8	3.927	4.066	Zerga zuzenak .....	A.3	7.977	7.986
Trafiko horniduragatiko aldak. ....		795	1.159	Zeharkako zergak .....	A.3	308	640
Bestelako ustiapien gastuak .....		18.228	18.995				
Transf. eta hitzart. diru-lag. ....	A.7	5.907	17.611	Jasotako transf. eta dirul. ....		36.033	30.304
				Kudeak.arr. beste sarrera batzuk....		2.346	3.011
<b>Ustiaketa mozkinak</b>		<b>5.157</b>	<b>-</b>	<b>Ustiaketa galerak</b>		<b>-</b>	<b>11.456</b>
Gastu finantzario eta antzekoak.....	A.9	72	1.889	Negozio balio eta kred. sarrerak.....		25	240
<b>Finantza emaitza positiboak</b>		<b>-</b>	<b>-</b>	<b>Finantza emaitza negatiboak</b>		<b>47</b>	<b>1.649</b>
Aurreko ekitald. gastu-galerak .....		375	772	Aurreko ekit. sarr. eta mozkinak ....		3	89
<b>Aurreko ekitaldietako mozkinak</b>		<b>-</b>	<b>-</b>	<b>Aurreko ekitaldietako galerak</b>		<b>372</b>	<b>683</b>
Ibilgetutik eratorritako galerak .....	A.8	2.946	2.729	Ibilgetua besterentz. mozkina .....	-	-	-
Aparteko galerak .....		-	70	Aparteko irabaziak.....		-	10
<b>Finantza emaitza positiboak</b>		<b>-</b>	<b>-</b>	<b>Aparteko emaitza negatiboak</b>		<b>2.946</b>	<b>2.789</b>
<b>Ekitaldiaren emaitza (Mozkina)</b>		<b>1.792</b>	<b>-</b>	<b>Urtealdiaren emaitza (galerak)</b>		<b>-</b>	<b>16.577</b>

## V.2 UDAL HAURTZAINDEGIA ERAKUNDE AUTONOMOA

2014-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA						Euroak milakotan			
SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA.	GABEA	%	
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.					
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	211	-	211	221	217	4	105	
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	800	-	800	626	626	-	78	
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>1.011</b>	<b>-</b>	<b>1.011</b>	<b>847</b>	<b>843</b>	<b>4</b>	<b>(84)</b>	

Euroak milakotan									
GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK.	ORDAIN.	GABE	%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.					
1. Langileria gastuak .....	A.5	717	15	732	723	707	16	99	
2. Ondasun arrunten erosk. eta zerb....		125	(13)	112	86	74	12	76	
8. Finantza aktiboak.....		2	(2)	-	-	-	-	-	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>844</b>	<b>-</b>	<b>844</b>	<b>809</b>	<b>781</b>	<b>28</b>	<b>96</b>	
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>38</b>				

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA				Euroak milakotan	
	HASIERAKO ZORRA	BALIOG.	KOBRA./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA	
					Zordunak .....
Hartzekodunak .....	29	-	29	-	
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>					



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Aitortutako eskubideak .....	847
Aitortutako obligazioak .....	809
<b>INDARREKO AURREKONTUKO AURREKONTUZKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>38</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUZKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>38</b>
Finantziazio desbideratzeak .....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako gastuak .....	-
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>38</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2014/1/1 .....	(32)
Aurrekontuaren emaitza .....	38
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak .....	-
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 2014/12/31-N</b>	<b>6</b>
Diruzaintzako funts likidoak .....	61
Sarreraren aurrekontuaren zordunak .....	15
Gastu aurrekontuaren hartzekodunak .....	(28)
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak .....	(29)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA 2014/12/31-N</b>	<b>19</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak .....	(13)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 14.12.31-N</b>	<b>6</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina .....	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>6</b>

EGOERAREN BALANTZEA 2014 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2014	2013	PASIBOA	2014	2013
<b>IBILGETUA</b> .....	<b>17</b>	<b>19</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b> .....	<b>23</b>	<b>(13)</b>
Ezmateriala .....	-	1	Ondarea .....	34	34
Materiala .....	17	18	Aurrek. Itxien emaitza posit. ....	303	-
			Ekit. itxien emaitza negatiboak .....	(350)	(350)
			Galera-lrabaziak .....	36	303
<b>ZORDUNAK</b> .....	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABUR</b> .....	<b>57</b>	<b>58</b>
Indarreko ekit. aurrek. zord. ....	4	2	Indarreko ekit. aurrek. hartz. ....	28	29
Ekit. itxien aurrek. zordunak .....	11	12	Erakunde Publiko hartzekodunak ...	29	29
Entitate publiko zordunak .....	-	2			
Kaudimengabez. zuzkid. ....	(13)	(13)			
<b>FINANTZA-KONTUAK</b> .....	<b>61</b>	<b>23</b>			
Diruz. eta aktibo likido baliok. ....	61	23			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>80</b>	<b>45</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>80</b>	<b>45</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2014 ETA 2013-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSKINA	2014	2013	SARRERAK	ERANSKINA	2014	2013
Langileria gastuak .....	A.5	723	726	Negozio zifraren zenbat. garbia .....	A.3	221	209
lbilg. amortizaziorako zuzkidura.....		2	2				
